



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **HERRI BILERAREN DEIALDIA** **HIRI ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**

**Gaia:** Udala aztertzen ari den Plan orokorrean emandako pausoak eta egindako azterketen aurkezpena

**Noiz:** Irailak 2 asteartea.

**Tokia:** Don Juanena.

**Ordua:** 19.30 etan.

Daukagun "Hiri Antolatzeko Arauak" agortuta eta egungo legedira egokitu gabe daude. Beraz, berria egitea komeni zaigu eta gainera legez derrigortuta gaude.

Plangintza Orokor berri bat egitea ekimen korapilatsu, luze eta eztabaida asko sortu dezakeena izaten da. Eta garestia, arkitekto urbanista talde bat eta espezializatutako beste hainbat teknikarien txostenak kontratatzea eskatzen duelarik. Joan zen urtean aukera sortu zitzaigun Aldundian proiektu aurkeztu eta horretarako diru-laguntza eskatzeko eta maximoa lortu genuen (% 50, 20.000€ artekoa). Beraz, aurrera egitea erabaki genuen.

Harrezkero, lan hori egiteko behar ziren aurreneko urratsak eman ditugu eta lehen azterketak ere jaso ditugu. Horiekin batera, hainbat proposamen eta aukerak landu ditugu.

Material eta elementu horiekin aurrera jarraitu aurretik, ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea irizpideak, norabideak eta aukerak aztertu eta denen artean erabakitzeko. Beti ere, ahal den eta adostasun maila altuenarekin, herriaren etorkizunari buruz ikuspegi bateratu bat lortu eta garatzeko asmoz.

Datorren astean, Udalak parte hartze prozesu hori herri bilera informatibo baten bidez abian jarriko du. Horrekin batera, bi astez erakusketa bat ikusgai egongo da eta tarte horretan etxeetan banatuko den inkesta bat betetzeko aukera izango da.

Bistan da, horrenbesteko garrantzia duen gai honetan, guztion parte-hartzea beharrezkoa zaigula, ahal den eta herritar gehien interesatu eta inplikatzeko bada, gero eta Plangintza Orokorra hobeago, osatuago eta adostasun gehiago duena izango da.

Zuen interesekoa izango delakoan, agurtzen zaituztet.

Alkizan, 2014ko abuztuaren 28an  
ALKATEA